



Amarotzen hiru lagun zauritu dira etxebizitza batek su hartu ondoren

TOLOSA ▶ Jabeak erredura larriak ditu eta Barakaldoko erietxera eraman behar izan zuten

SORBURUA ▶ Bart 03:00etan piztu zen sua, suhiltzaileek ez dute argi oraindik zerk eragin zuen ▶ 6



Etxebizitza erreta. M. SOROA

Santa Ageda bezperako makilen hotsak gogor entzun ziren gurean

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Eskean eta kantuan atera ziren herri gehienetan; Leitzan bertso eskolakoak ere aritu ziren kantuan ▶ 5

LEITZA ▶

Bengoetxea VI.a aurrera Binakako Pilota Txapelketan

Patxi Ruizekin batera Martinez Irujo eta Goñiren aurka irabazi zuen ▶ 7



N. LIZARTZA

ASTEASU ▶

Biztanleko 3 euroko diru laguntza emango dio Udalak HITZARI

«Euskara bultzatzeko» hitzarmena dela esan du Amenabar alkateak ▶ 4



Jon Mujika eta Iñaki Amenabar alkatea hitzarmena sinatzen. I. GARCIA

LEABURU ▶

Arrospide at Urrezko Aizkora Txapelketan

Mugertzarekin galdu zuen larunbatean ▶ 6

GIZARTEA ▶

Jende ugari aizkoran eta bertso saioan

Igandean amaitu ziren San Blas auzoko jaiak; «iaz baino jende gutxiago ibili bada ere giro ederra izan da»

ESTI EZEIZA

Joan den asteburuan, ohiturari jarraituz, jai giroan eman zioten ongietorria otsailari San Blas auzokoek. Lokarriak, opilak eta erroskilak dira egun henen osagai. Dena den, Tolosako auzoan, bertsolariak, herrikirolak eta trikitixa izan ziren protagonista. Hauekin batera jatekoak ere izan zuen arrakasta, pintxoetan saltzeko 250 kilo txorizo gastatu baitziren.

Emendek elkarteko kideen esanetan, «giro ederra izan da jaietan, nahiz eta aurreko urteetan baino jende gutxiago etorri». Izan ere, larunbat goizean Zuhaitz Eguna ospatu zen eta jende asko hara joan zen, San Blas auzora beharrean. Ekitaldi jendetsuena igandekoa izan zen. Auzotar ugari bildu zen Unai Otaño eta Iñaki Azurmendi aizkolarien saioa ikustera. «Beraiek uste baino lan gehiago egin behar izan bazuten ere, ikuskizun polita eskaini zuten bi gazteek» adierazi zuten antolatzaileek. Zutik nahiz etzanda jarritako enborrak moztu behar izan zituzten, eta gustura geratu ziren ikusleak saioarekin.

Aizkolarien ondoren bertsolariak izan ziren. Punta punta-ko bi bertsolari aritu ziren taula gainean, Andoni Egaña eta Jexux Mari Irazu. Hauek, bi saio egin zituzten, bata eguerdian eta bestea arratsaldean. Jaietara amaiera emateko, Elustondo anai-arrebak izan ziren jendea dantzatzeko prest.



Andoni Egaña eta Jexux Mari Irazu aritu ziren bertsoan. N. LIZARTZA



Unai Otaño ibartarra aritu zen aizkoran Azurmendirekin batera. N. L.

XAKEA ▶

Hasi da Tolosaldeko Eskolarteko Txapelketa

Igande honetan jokatuko da bigarren saioa, 11:00etatik aurrera, Kultur Etxean

ERREDAKZIOA

Herenegun Tolosaldeko Eskolarteko Txapelketa hasi zen Tolosako Kultur Etxean. Txapelketa lau igandetan jokatuko dute eta bertatik aterako dira probintziako finalera joango diren eskualdeko ordezkariak. Lehen saioaren amaieran infantiletan Orixeko (Tolosa) Aimar Intxaurren eta Anoetako Ikastolako Oihana Etxenike doaz lehen postuan. Puntu batera Jesusen Bihotzako (Villabona) Aitor Alkorta dute. Alebinetan Aitor Villena doa lehen postuan, Jesusen Bihotzako hau ere, eta bi

puntura ditu Eneko Maiz (Jesusen Bihotza), Mikel Mugu-ruza (Peio Errota), eta Mattin Salbarredik (Muñagorri) osatutako hirukotea. Benjamine- tan, Danel Intxaurren (Samaniego) eta Unai Mendizabal (San Juan) dira liderrak. Atzetik, bi puntura, Mikel Arechaga eta Eloy Iglesias dituzte, biak Hirukidekoak. Nesken sailkapen berezian Jone Mujika (Samaniego) da lehena. Puntu erdira ditu Ane Salbarredik eta Oihana Ugartemendia, biak Muñagorri Ikastolakoak. Hurrengo saioa igandean izango da, 11:00etatik aurrera Kultur Etxean.

ARETO FUTBOLA ▶

Derbi gipuzkoarrean Nogales izan da garaile

Laskorainek 1-4 galdu zuen igandeko partidari Astigarragako taldearen aurka

ERREDAKZIOA

San Blas egunez jokatu zuten Laskorainek eta Nogalesek derbia Usabalen. Lehen zatian, Nogaleskoek, atzealdean sendo egon eta kontraerasoa bilatzen zuten, eta horitxoek aldiz, baloia pazientziaz jokatzea. Bisitariak izan ziren, falta bat aprobetxatuz, lehen gola sartu zutenak. 0-2 ere ipiniko ziren kontraeraso bati es-

ker, baina Saldiasen segituan egintza zuen 1-2koa.

Aldagelatik bueltan, horitxoek ondo ekin zioten bigarren erdiari. Berdinketa erdietsi zuten nahiz eta gol aukerak gutxi izan, eta izandakoetan ez asmatu.

Presagatik edo, baloi gale- rax behin eta berriz errepikatu ziren eta honela etorri ziren amaierako Nogaleskoen 1-3 eta 1-4-koa.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47-behea
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-mail: ernio@inmoernio.com
www.inmoernio.com

Anoeta. Duela gutxi eraikuntza duplexa salgai. Garaje itxia aukeran. Oso egoera onean.

Amezketza, Berastegi, Hernialde, Tolosa eta Zizurkil. Hainbat etxe bifamiliar eta abiki, eraikuntza berrikoak eta bigarren eskukoak.

Amezketza. 90m²ko sartzeko moduan dagoen etxebizitza. 3 logela eta 2 bainugela.

Ibarra. San Inazio. 3 logela, egongela, sukalde eta bainugela. Bizitzera sartzeko moduan. Berokuntzarekin.

Ibarra. Plaza inguruan. Bi logela, egongela, sukalde eta

bainugelarekin; dena kanpoaldera. 180.300 euro.

Irura. Etxezarreta. 3 logela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Garajea aukeran.

Irura. Labadero, 100 m². 3 logela, sukalde, egongela eta 2 bainugela.

Legorreta. Trasteleku salmentan. Bizikleta edo motorrak gordetzeko egokia.

Tolosa. Berazubi. Igogailu proiektua onartuta. 228.384 euro.

Tolosa. Eraikuntza berriko hainbat etxebizitza salgai. Bi, hiru eta lau logela aukeran. Garajeekin.

Tolosa. Beotibar. 36 m². Altua, 150.000 euro.

Tolosa. Zumalakarregi. 98 m²ko pisu zoragarria salgai. Iluspegi ezin hobek. Estreinatzeko. Garajea aukeran.

Tolosa. Zumalakarregi. 92 m². 3 logela, 2 bainugela. Guztiz berrituta eta estreinatzeko. Garajearekin.

Tolosa. Pedro de Tolosa. 83 m². Distribuzio era ezberdinak. Garajea aukeran.

Tolosa. Kondeaneko aldapa. 2 logela, egongela, sukalde eta bainugela. Igogailuarekin.

Tolosa. San Frantzisko. 50 m²ko apartamentu berriua salgai. Igogailu, berokuntza eta garajearekin.

Tolosa. Pedro de Tolosa. 125 m²ko

pisua salgai. Egoera oso ona. Garajea aukeran.

Tolosa. SAM. Iskineko etxe atxikia salgai. Portxe eta guzti dauka.

Tolosa. Erabat akondizionatutako 120m²ko lokal-bulegoa alokatzen da. Zonalde bikaina. Egoera ezin hobea.

Oso argitsua eta leiho handiekin. Aire girotua. Egokia edozein bulegorako, mediku kontsultarako, delegazioentzat.

Zizurkil. Etxe atxikia salgai. Terrazarekin eta lorategiarekin. Ezin hobeto. Orientazio bikainarekin.

Hernani. Akarregi. Errepidearen aldamenean. 385 m² dituen pabiloi industriala salgai. Estreinatzeko.

TOLOSA ▶

Garaipen garrantzitsua Tolosa Aralarrek

61-63 irabazi zuten EHU Arabaren aurka; sailkapenean bigarren postuan daude

ERREDAKZIOA

«Ez zen partida polita izan» larunbatean Gasteizen, EHU Arabaren eta Tolosa Aralarren artekoa. Azkenean, tolosarrek irabazi zuten, 61-63ko markagailuarekin.

Lehen laurdenaren amaierara hiru puntuko desabantailarekin soilik iritsi ziren tolosarrek. Bigarren partzialaren erasoan defentsan baino hobeto ibili ziren eta 26-31 amaitu zuten. Hirugarrenean, 43-52ko markagailuarekin amaitu zuten. Partida nahiko berdindurik iritsi zen, beraz, azken partzialera, eta azkenean, bi puntuko aldearekin irabazi egin zuten tolosarrek.

Garaipen honekin bigarren postuan amaituko du lehen itzulia Tolosa Aralarrek. 11 garaipen eta 4 porroteko balantzearekin aukera handiak dituzte mailaz igotzea lortzeko. Bigarren itzulia etxetik kanpo hasiko dute, Getxon, hain zuzen ere, Sotojeans taldearen aurka, datorren larunbatean 20:00etan.

TOLOSA ▶

Ormazabal Euskadiko txapelketa mendiko eskian

ERREDAKZIOA

Asteburu honetan jokatu dute Luz Ardidenen eta Gavarnien Euskadiko Mendiko Eski Txapelketa eta Joseba Ormazabal tolosarrek irabazi du gizonen kategorian. Bere atzetik geratu dira Arkaitz Letamendi eta Aitor Otxoa, eta emakumezkoetan Izaskun Zubizarreta izan da lehena. Joseba Tobar tolosarrek ere parte hartu zuen txapelketa honetan, eta emaitza ona lortu zuen. Espainiako eta Europako Txapelketa izango dituzte denboraldiko hurrengoak.

TOLOSA ▶ FUTBOLA

Partida ona jokatu arren, garaipena ezin lortu Tolosak

2-0 galdu zuen Tolosa CFk larunbatean Baskoniaren aurka; hurrengo partida etxean jokatu dute Cultural-en aurka

IÑIGO TERRADILLOS

Etxetik kanpo jokatu zuen larunbatean Tolosa CFk, Baskonia taldearen aurka, hain zuzen, eta punturik batu gabe bueltatu ziren tolosarrek. Izan ere, 2-0eko markagailuarekin amaitu zen partida etxekoan alde.

Partida nahiko ondo hasi zuten Tolosakoek. Jokalariak joko ona ari ziren egiten, baina 17. minutuan Antton Azpiroz kaleratu zuen epaileak, eta gauzak asko aldatu ziren orduetik, 10 jokalarirekin geratu baitziren. Lekua mantendu zuten

jokalariek eta eusten ere jakin zuten. Hala, lehenengo zatian ez zen golik igo markagailura. Bigarren zatian, ordea, iritsiko ziren Baskoniaren bi golak. 60. minutuan sartu zuten lehena etxekoek, eta golaren ostean tolosarrek Orue eta Ekaitzen eskutik aukera garbiak izan bazituzten ere ez zuten gauzatzen jakin. Tolosak asmatzen ez bazuen ere, etxekoek partida amaitzear zela bigarrena egiten jakin zuten. Hain zuzen ere, 82. minutuan sartu zuten bigarrena. Azkenean, 2-0eko markagailuarekin bukatu zen norgehiagoka.

Kepa Mendizabal Tolosako entrenatzailearen ustetan, «orain arte jokatu dugun partidarik onena izan da, baina jokalaria bat gutxigorekin geratu gara seguitan, eta horrek min handia egiten du; gainera, hori gutxi balitz, aurkariak kalitate handia dutela erakutsi zuten, baloia ederki mugituz alde batera eta bestera».

Norgehiagoka honen ostean, 22 punturekin 15. postuan daude sailkapenean tolosarrek, Alaves eta Real Union B-rekin berdinduta. Hurrengo partida, bestalde, etxean jokatu dute Durangoko Cultural

SAILKAPENA ▶

HIRUGARREN MAILA

Taldeak	Puntuak
1. Portugalete	44
2. Amorebieta	41
3. Zalla	40
4. Gernika	37
5. Beasain	36
6. Elgoibar	35
7. Baskonia	34
8. Santurtzi	34
9. Eibar B	30
10. Audio-Salleko	29
11. Lagun Onak	28
12. Cultural	28
13. Arenas	27
14. Alaves	22
15. Tolosa	22
16. Real Union B	22
17. San Pedro	21
18. Santutxu	20
19. San Ignacio	18
20. EHU	15

taldearen aurka. Partida horretarako hainbat jokalariren bak jakin izango ditu Kepa Mendizabal entrenatzaileak, izan ere, Antton Azpirozekin batera, Agirrezabalak ere ezingo du jokatu biak ere zigortuta daudelako.

ARRAUNA ▶

Tolosaldea Arraun Klubak ekin dio Gipuzkoako Batelen Ligaxkari

Larunbatean Trintxerpen lehiatu ziren, eta igandean, berriz, Pasai San Pedron

ERREDAKZIOA

Iragan asteburuan hasi zen Gipuzkoako Batelen Liga, eta TALEKO bederatzik batek emaitza onak lortu zituzten.

Larunbata goizean ekin zioten norgehiagokari Trintxerpen. Infantil-kadete emakumezkoetan, Tolosaldea A-k laugarren postua lortu zuen, 5

minutu eta 11 segundoko denborarekin; Tolosaldea B, berriz, seigarren geratu zen 5 minutu eta 19 segundorekin. Infantil gizonen kategorian, Tolosaldea A-k hirugarren postua lortu zuen, 5 minutu eta 13 segundoko denborarekin. Kadete gizonen kategorian, Tolosaldea A laugarren geratu zen 7 minutuarekin, eta Tolosaldea B seigarren 7 minutu

eta 9 segundorekin. Jubenil-senior emakumezkoetan Tolosaldea B-k lehenengo postua lortu zuen 8 minutu eta 39 segundorekin, eta Tolosaldea A-k bosgarren amaitu zuen 9 minutu eta 21 segundorekin. Jubenil mutiletan, Tolosaldea A-k lehen postuan amaitu zuen, 8 minutuarekin, eta Tolosaldea B hirugarren 4 minutu eta 23 segundorekin.

Bestalde, igandean, Pasai San Pedron zuten lehia eskualdekoek. Infantil-kadete emakumezkoetan, Tolosaldea A-k bigarren amaitu zuen, eta Tolosaldea B-k, bederatzigarren; infantil gizonen kategorian, Tolosaldea A-k bigarren amaitu zuen; kadete gizonen kategorian, Tolosaldea A-k laugarren egin zuen, eta Tolosaldea B-k zortzigarren; jubenil-senior emakumezkoetan, Tolosaldea B-k lortu zuen garaipena, eta Tolosaldea A-k bosgarren egin zuen; jubenil mutiletan, Tolosaldea A-k bigarren egin zuen, eta Tolosaldea B-k laugarren.

urteurrena ▶


Zorion Atxukarro Matxinea
I. Urteurrena

Ederra huen hirekin egotea
baina gogorragoa duk hi gabe bizitzea.

Hire koadrila

BERASTEGIN, 2007ko otsailaren 5a





TOLOSAKO UDALA

ENKANTEA

Gobernu Batzarrek, 2007ko urtarrilaren 22an, Tolosako Bidegorriaren (2. zatia) proiektua exekutatzeko Klausula Administrazioen agria onartu zuen.

- 1.- **Helburua:** Tolosako Bidegorriaren (2. zatia) proiektuko obren kontratazioa.
- 2.- **Lizitazioaren zenbatekoa:** 865,200,07 € (BEZA barne)
- 3.- **Lanak egiteko epea:** 4 hilabete
- 4.- **Espedientea ikusteko:** Kopibat (Lizardi plaza 2), telefonoa 943 65 51 66. Kopitec (Gudari kalea 8) telefonoa 943 65 40 28
- 5.- **Behin-behineko fidantza:** 17.304 €
- 6.- **Behin betiko fidantza:** adjudikazio-zenbatekoaren % 4
- 7.- **Enpresen sailkapena:**

TALDEA	AZPI TALDEA	MAILA
A	2	C
B	3	B
C	4	D
G	5	C
K	6	B
I	1	B
E	1	C

8.- **Eskaizak egiteko epea eta tokia:** Tolosako Udalbeteko Sarreraren Erregistroan, plaza Zaharra, 6-B-n, 2007ko otsailaren 26a eguna, eguerdiko ordu bata (13:00) arte.

Tolosan, 2007ko otsailaren 5ean
ALKATEA

ANOETA ▶

Aerobikeko talde berria osatzeko aukera

Anoetako kiroldegian ordutegia luzatu dute (10:00-12:30 eta 15:00-21:00 asteleheneetik ostiralera eta 09:00-13:00 larunbatean). Horrela aerobikeko beste talde bat osatzeko aukera dago. Hilaren 13tik ekainaren 29ra irauko luke ikastaroak, asteartean eta ostiralean, 15:30etik 16:30era. Prezioa 60 eurokoa izango da, ondorengo beherapenekin: kiroldegiko abonatuak %20a, gazte txartelarekin %10a eta familia ugariakoak, langabetuak, 60 urtetik gorako jubilatuak, pentsionistak eta ikasleak %25a. Beherapen bereziak daude diru sarrera baxukoentzat. Izen-emaitea kiroldegian egin behar dute hilaren 10a baino lehen.

POLITIKA ▶

Torturak jasan dituztenen bilera, gaur Villabonan

Torturak jasan dituzten Aiztondo bailarako herritarrek bilera egingo dute gaur Villabonako euskaltegian, 19:30ean. Torturatuek Elorrión (Bizkaia) egindako bilera nazionalaren erabakitakoari jarraipena emanez antolatuko dute bilera. Deialdia luzatu dute torturak jasan dituzten guztiak azaldu daitezkeen.

GIZARTEA ▶

Loatzokoen kaldereroetarako entseguak, gaur

Loatzo Musika Eskolakoak kaldereroen eguneko bezperan, ostiralean, Iruran, Anoetan eta Ibarren aterako dira. Ibarren 18:00etan plazan gelditu dira eta Iruran 18:00etan, plazan ere. Entseguak egingo dituzte gaur: Ibarren Uzturpe Ikastolan 19:00etan dira eta Irurako Kulturunean 18:00etan.

GIZARTEA ▶

Jubilatuentzat irteera Baionara

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak Baionara irteera antolatu du jubilatuentzat, hilaren 22rako, osteguna. Goizez, turismo gidari batekin hiria bisitatuko dute eta azoka ikusteko aukera izango dute. Bar Du Marchen bazkaldu ondoren, arratsalde, Miarrizteko portua bisitatuko dute. Prezioa 23,5 eurokoa da. Ordaintzeko egunak ondorengoak dira: hilaren 14ean Larraulen, liburutegian 17:30etik 19:00etara, eta Zizurkilen, Pentzikane tabernan, 12:00etan; hilaren 15ean, Alkizan, liburutegian 17:00etatik 19:00etara; eta hialren 16an, Adunan, liburutegian 17:30etik 19:30era.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ASTEASU ▶ EUSKARA



Jon Mujika eta Iñaki Amenabar, atzo, sinaketaren une batean. I. GARCIA

Udalak biztanleko hiru euroko diru laguntza eman dio HITZARI

2006ko eta 2007ko izango da diru laguntza; Amenabar alkateak «euskara bultzatzeko» hitzarmena dela esan du

IMANOL GARCIA

Asteasuko Udalak TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA argitaratzen duen Tolosa Herria Hedabideak enpresari biztanleko hiru euroko diru laguntza eman dio, 2006 eta 2007 urteei dagokionez. Akordioa atzo sinatu zuten Iñaki Amenabar Asteasuko alkateak eta Jon Mujika Tolosa Herria Hedabideak kudeatzaileak.

Amenabarrek azaldu zuenez, «euskara bultzatzeko» akordioa da sinatutakoa. «Euskararen normalizazioari begira emandako pausoa da, irakurzaletasuna sendotzeko asmoarekin egindakoa». Mujikak, eskerrak eman ondoren,

Asteasun harpidetza sustatzeko kanpaina bultzatuko dutela adierazi zuen.

4.270 euro 2006an

Aurreko urteari dagokien diru laguntza 4.270 eurokoa da eta dagoeneko Udalak eman du. Aurtengoa oraindik zehaztu gabe dago, baina biztanlegoa gehitu denez, zertxobait gehiago izango da. Diru laguntzaren %75a hitzarmena sinatutakoan ordainduko da eta gainontzekoa diruz lagundutako jardueraren memoria, diru sarrera eta gastuen balantzea eta gastuen agiriak aurkeztu ondoren.

Akordioan zehazten dute, eskualdeko euskarazko

egunkariak «euskararen normalizazioa begirako lanean jarraituko du eta normalizazioarekin zerikusia duten beste ekimen guztiak zabaldu eta sustatuko ditu». Bestalde, Udala herriko biztanlearen informazio iturri garrantzitsua dela azaltzen du hitzarmenak. «Horrela, egunkariak Udalaren eta herritarren arteko zubi izan nahi du eta Udalarekin zerikusia duten albisteak argitaratuko ditu». Asteasuko Udalez gain, eskualdeko beste hainbat udalerririk ere akordioak sinatuta daukate HITZAREkin aurtengorako, biztanleko hiru euro emanez. Tolosa, Ibarra eta Villabona dira, hain zuzen, hitzarmen horiek sinatu dituztenak.

dantza
ikuskitzuna
LIZARTZAN

Otsailak 9, Ostirala
20:00etan
OTSOLAR dantza taldearen
emanaldia
Lizartzako Aztinondo
pilotalekuan

SANTA AGEDA ▶

Makilen hotsen oihartzuna

Bi eskualdeetako hainbat herritan ospatu zuten Santa Ageda bezpera, eskean eta batez ere, kantuan

NEREA URBIZU

Eskualdeetako herri batzuetan makilen hots ordenatua entzun zen igandean zehar. Santa Ageda bezperan egiten den moduan, artzaiz jantzita eskean ibili ziren Ikaztegieta, Alkizan, Tolosan, Adunan, Alegian, Anoetan, Asteasun, Ibarra, Villabonan, Zizurkilen, Leitzan eta Iruran.

Ez da dena ohitura zaharrei eustea baina. Tarteka, gauza berriak egiten dira herrietan; Leitzako kasuan, esaterako. Han lehenengo aldiz bertso eskolakoak atera ziren kantuan eskea egitearekin batera. «Espero genuena baino jende

gehiago hurbildu zen, eta sentazio oso ona daukagu», zioen Unai Elizasuk, Leitzako bertso eskolako kideetako batek. Herrian zehar sei geldidune egin zituzten eta inprobisatuz joan ziren: «Santa Agedaren koplak abestu genituen, eta ondoren Santa Agedaren doinuarekin asmatuz joan ginen». Guraso elkartekoak, txistulariak, trikitilariak eta ume asko elkartu ziren plazan, gero elkarrekin han bertan meriendatzeko.

Euskal Herriko ohiturak agintzen duen bezala, Tolosako Kirikiñoko 70 bat neska mutil eta hainbat begirale Tolosako kaleetatik zehar ibili ziren Agate Deuna eguneko doinuak abesten. Hala, goiza era bere-

zian igarotzeko aukera izan zuten. Alegian abeslari talde bat bildu zen: soldaduska Afrikan egin behar izaten zuten mutilak ibiltzen ziren eskean, jasotzen zuten dirua Afrikako egonaldia eramangarriagoa izan zedin erabiltzen zuten. Kondaira haintzat hartuz atera ziren Alegian.

Ohitura hau gerora baztertua geratu zen eta 1961ean berriro ere Afrikara soldaduska joaten zirenek berreskuratu zuten.

Herri guztiek berdin, baina denek dute egun hau bereziago egiten duen zerbait. Kontuak kontu, Santa Ageda emakumeek bakarrik izan ditzaketen gaixotasunen babeslea da: eskualdeetako makilen hotsak berak entzuteko modukoak izan dira behintzat.



Tolosako Lizardi elkarteko kideak ere atera ziren kantuan. HITZA



Arratsaldean zehar kantari atera zen talde bat Alegian. EDU ARRAYET



Leitzako gazteboak goizean taldeetan ateratzen dira eskean. N. LIZARTZA



Anoetan eskusoinuekin batera elkartu ziren plazan. N. LIZARTZA



gure etxean
euskara
gure etxean
berria

Egin zaitez harpidedun

1. Kioskoan baino %10 merkeago.
2. Banaketa DOAN goizeko 08:00ak baino lehen: etxean, lantokian, kioskoan...
3. Harpidedunentzat opariak: zozketak eta kupoiak astero, eta urte osoan erabiltzeko hainbat deskontu.
4. Promozioetan abantailak: BERRIAk ateratzen dituen liburak, diskoak eta abar merkeago.

Orain eskaintza berezia

Otsailaren 28a baino lehen harpidetuz gero,

oparia zuretzat

2 LAGUNENTZAKO BAZKARI EDO AFARIA

zuk aukeratzen duzun hauetako sagardotegi batean

GIPUZKOA

LARRE GAIN
☎ 943 555 846
LEIZANAN

GIPUZKOA

OTSUA-ENEA
☎ 943 556 894
LEIZANAN

BEHARA

IBARRA
☎ 946 731 100
ZORROTZA

ARABA

ITURRIETA
☎ 945 445 385
ARABAN

NAFARRIA

MARTITXONEA
☎ 948 604 607
ALDIZ

Deitu ORAIN!! **943 30 43 45**

* Urte osoan eguneroko harpidetza izan behar du

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

TOLOSA ▶ EZBEHARRA

Hiru lagun zauritu dira etxebizitza batek su hartu ondoren

Amaroz auzoko etxe batean sortu zen sua, zaurituetako bat larri dago Barakaldoko erietxean, beste biak ondo daude



Amaroz auzoko hirugarren zenbakiko lehen pisuan izan zen sutea, atzo goizaldean. MADDI SOROA

MADDI SOROA

Atzo goizaldeko hiru eta erdiak aldera, Amarozen auzuneko hirugarren zenbakiko lehen pisuak sua hartu zuen. Hiru zauritu izan ziren guztira. Horietako bat, oso larri eraman zuten Barakaldoko Gurutzeta erietxera, erredua handien unitatera, hain zuzen ere. Gainontzeko biak, Asuntzion erietxera eraman zituzten zauri larriarik gabe.

Oraindik ez dago argi zein izan den suaren sorburua, suhiltzaileak iritsi zirenerako garrak oso zabaldua baitzeu-

den. Baliteke sukaldean edota logeletako batean sortu izana, baina suhiltzaileek oraindik ez dute azalpenik eman eta beraz, ez dago batere argi zerk sortu zuen sua.

Zauriturik larriena, etxebizitzan bizi den gizona, patioan babestu zen eta lehioa zabal-tzera zihoala hartu zuen suak. Hori dela eta, Barakaldoko Gurutzeta erietxera eraman dute. Beste bi zaurituak, emaztea eta semea, Asuntzionera eraman zituzten, arnasturiko keak egindako kalteak aztertzerako. Biak ondo daude eta ez daukate zauri larriarik.

Sutearen eraginez, etxebizitza guztia uzteko agindua jaso zuten etxebizitza berean bizi diren gainontzeko bizilagunek. Hori dela eta, senitartekoen etxeetan pasatu dute gaua batzuk. Beste batzuk, berriz, Oria hotelean izan ziren. Mementuz, ezingo dute beraien etxeetara bueltatu, udaletxeko teknikariak suteak etxebizitzan izan dituen kalteak aztertzen ari baitira. Baliteke laister izatea, baina, badaezpada, suteak eraikinean izan dituen eraginak aztertu behar dituzte ezberharrik ez gertatzeko. Ondorengo egunetan jakingo dute etxera bueltatu ahal izango duten.

iragarki laburrak ▶

ALOKAIRUAN

Pisua. Lekunberrin pisua alokatzen da. Interesatuak deitu
679 20 14 60ra.

LANA

Sukaldari laguntzaileak.

Eskoletarako, udaletarako.

943 44 48 66.

Gidariak.

Erakunde publikoetarako. Interesatuak deitu

943 44 48 66ra.

SALGAI

Pago egurra. Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. Interesatuak deitu honako telefono zenbakira:

615 75 57 62.

Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1955ekoa. 153.000 km liburuarekin. 18ko lllantak eta tektua. Egoera oso onean. 14.000 euro. Interesatuak deitu

943 65 41 43ra.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zeuk idatzi. Sartu gure webguneko *Zeuk idatzi* atalean eta kontu iezakiguzuzure herri edo inguruko albisteak eta gertakizunak. Ez ahaztu zure datu pertsonalak jartzea, modu horretan zurekin harremanetan jarri ahal izango baitugu.

LEABURU ▶ KIROLA

Arrospide Urrezko Aizkora Txapelketatik at

Nazabal eta Lopezek mendean hartu zituen Arrospide eta Mugertza larunbateko saioan



Arrospide jaso zuen omenaldi eguneko artxiboko irudia. HITZA

ERREDAKZIOA

Anjel Arrospide leaburuarra eta Fausto Mugertza bikotea Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketatik at geratu dira, joan den larunbatean Floren Nazabal eta Juango Lopezen aurka finalerdiko saioan galdu ondoren.

Minutu bat eta hamabi segundoren alde atera zieten gipuzkoarrei txapeladunak emozioa, ordea, azken unera arte mantendu zuten. Aurretik joan ziren Nazabal eta Lopez

baina Arrospide eta Mugertza alde murriztuz joan ziren. Nafarrek 23 minutu eta 54 segundotan burutu zuten saioa. Arrospidek eta Mugertzak, berriz, 25 minutu eta 6 segundotan.

Finalari begira, larunbatean jakingo da zein izango den bigarren bikotea. Barberena-Larretxea eta Olasagasti-Peñagarikano izango finalaurreko lehian, Olasagasti min hartuta dagoenez, ordea, baiteste Luis Txapartegik egitea haren ordezkotz lanak.

ALEGIA ▶ POLITIKA



Eneko Elola eta Aritz Lopezen aldeko festa jendetsua

M. Soroa ▶ Joan den larunbatean, azaroaren 29an atxilotuak izan ziren Eneko Elola eta Aritz Lopezen aldeko festa antolatuta zuten Alegian. 50 lagun inguru elkartu zen Gaztetxean bazkari legea egiteko. Ondoren, *Utzi bakean Euskal Herria* lelopean manifestazioa egin zuten eta gauean, Skamatxin eta Izeba pilarren hilotzak taldeen musikaz gozatu zuten bertaraturikoei. Oraindik zenbaketak egin ez diren arren, bilduriko dirua, senitartekoei emango diete antolatzaileek. NEREA URBIZU

LEITZA ▶ PILOTA

Bengoetxeak eta Ruizek, ezustekoa

Leitzarrak azkeneko partiden ondorioz eskuina «justu» xamar duela azaldu du

NAIARA GARZIA

Bengoetxea VI.ak eta Patxi Ruizek igandean Binakako Txapelketako partidarik hobereana eskaini zuten, 22-21 irabaziz. Erritmo eta azkartasunez beteriko norgehiagokan Patxi Ruizek partida bikaina jokatu zuen, eta Oinatz Bengoetxearen laguntzarekin faboritoak estutasun batean jarri dituzte. Pilotari leitzarrak esan duenez, «nire burua ongi ikusi nuen, nahiz eta errematean gauzak niri uste ez bezala atera».

Partidako protagonista nagusia Patxi Ruiz izan zen eta etengabe lanean aritu zen, pilota zaleei tanto ikaragarri politak eskainiz. Aldi berean, Gofiren defentsak argi utzi zuen momentu onean dagoela.

Erritmo handiarekin jokatu

tako partida izan zen, «aurkariak oso onak ziren eta pilotakada guztietan dena eman behar izan genuen, Oso norgehiagokara zorrotza izan zen», azaldu du Bengoetxea VI.ak.

Martinez Irujoren eskuineko eskuko arazoak direla eta, leitzarrak ere arazoekin dabilela argi utzi du. «Eskuineko eskua nahiko justu daukat, aurreko partidetatik. Astean zehar zaindu eta masajistarengana joan arren, hala ere partidaren nabaritu egiten da eta sufritu egiten dut».

Ruiz eta Bengoetxea VI.a irabazten hasi ziren, eta lehenengo bi tantoak hauek lortu zituzten. Partida hasi eta berehala iritsi zen lehenengo berdinke-ta, faboritoek 2-2an jarri baitzuten markagailua. Bengoetxea VI.ak eta Ruizek berriro



Bengoetxea VI.a Errastiri egindako omenaldian. E. EZEIZA

tanto bateko aurea hartu bazuten ere, Martinez de Irujo eta Gofnik aurea hartu zieten, 3-3ko berdinketaren ondoren, eta partida osoan zehar aurretik mantendu ziren. 21. tantoan irabazten zihozten arren, Bengoetxea VI.a eta Ruiz markagailuan tantoak gehitzen joan ziren, partida irabazi arte. Norgehiagokara amaieran azpimarratzekoak dira Oinatz Bengo-

txearen hiru tantoak, eta bereziki bi dejadak (31-19 eta 21-21).

Hurrengo asteburuko partidari begira, irabaztera aterako direla adierazi du leitzarrak. «Animatuta gaude eta irabaztera joan behar dugu. Hirugarren aukera bat ere badago, baina nik ez dut honetan pentsatu nahi. Lehenbailehen irabazten saiatuko gara».

LEITZA ▶

Aurrera lehenengo doa sailkapen orokorrean

Larunbatean kanpoan jokatu zuen partida irabazi eta beste hiru puntu lortu ditu

NAIARA GARZIA

Larunbateko partida eta gero, Aurrera aurreko postuan doa iguera fase honetan, puntu batengatik San Cristobal atzetik duela.

Larunbatean kanpoan jokatu zuen partidara alde zurreretik mugatu xamarrak joan ziren leitzarrak. Antolatzaileek adierazi duten bezala, «baja dezenterekin joan ginen». Honetaz gain, Dani Alvarez eta Iñigo de Carlos zigortuta zeudenez gazteek jokatu behar izan zuten. «3 gazte gurekin aritu ziren eta oso maila ona erakutsi zuten». Gazteek, jende falta dagoenean, astean zehar ere Aurrerakoekin entrenatzen dute, gero partidara prestatuago joateko.

Arday (Zizur) taldeko jokariak izan ziren gola sartzen lehenengoak, markagailua 1-0 jarriz. «Defentsan oso serio aritu ginen, baina lehenengo zatian aurkariak joku hobea erakutsi zuten. Gure defentsa lehenengo zatian sendoa izan zen, baina ez genuen jokurik egiten asmatu».

Bigarren zatian, berriz, fisikoki hobeto daudela argi ikusi zen, pixkanaka jokuan sartzen joan ziren heinean. Hego Bengoetxeak bi gol sartu zituen, bigarrena atezainaren gainetik baloia sartuz, futbol munduan *baselina* bezala ezagutzen dena. «Etxetik kanpo eta arerioa indartsua zela kontutan hartuta pozik gaude». Leitzarrak, beraz, lehen postuan daude.

ARESO ▶ INAUTERIAK



Hurrengo urtera arte inauteriei agur

N. Garzia ▶ Bukatu dira Aresoko inauteriak eta igandean, azkeneko egunean, larunbatean bezalaxe, eskean atera ziren herriko gazteak trikitixa eta panderoaren laguntzarekin. Eguerdian bazkaria egin zuten eta inauteriak musikarekin agurtu zituzten, iluntzean Jaione eta Jonek herriko plazan jo baitzuten. NEREA LIZARTZA

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

hilberria ▶

Felix Aranalde Iturralde

(2007ko otsailaren 5ean hil zen)

Orexako mutiko bihurri eta alai, behar zanen langile, jaizale ere bai. Txanba eta irria, umorea anai, beti izango gaituk lagun artean zai. Orexako sendiak



OREXAN, 2007ko otsailaren 6a

hilberria ▶

Felix Aranalde Iturralde

JAUNA

Atzo hil zen, 61 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Golan bego—

Zure irriparra zure alaitasuna gure arnasartean bizirik dabil. Ez adiorik gero arte baizik

Kuku elkarteko bazkideak

ANOETA, 2007ko otsailaren 6a



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko otsailaren 6a, asteartea ▶ V. urtea

Zuzendariordea. Iñigo Terradillos. Kudeatzailea. Jon Mujika. Publizitatea. 661 678818. tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa. 687 410082 - 687 410033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info. Villabona-Aitz. 687 410022. villabona-aitzondo@tolosaldeko-hitza.info.
Añoatidea. 687 410022. anoatidea@tolosaldeko-hitza.info. Ibarraldea. 687 410032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea. 687 410034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info. Leizaldeko. 687 410118. leizaldeko@tolosaldeko-hitza.info.

GAURKO EGURALDIA goizez arratsaldez beroena **11** hotzena **8**

BIHARKO EGURALDIA goizez arratsaldez

'HITZA' LAGUNTZEN UDALAK: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alzo, Amezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baijarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Inura, Leaburu, Leiza, Lizartza, Orea, Tolosa, Villabona, Zuzurkil

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA 902 82 02 01
(balantza argizteko, harpidetuen egileko...)

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Tolosa. Zaldunita Bezperako Danborradarako entseguak gaur, bihar eta etzi izango dira Kultur Etxean 20:00etan eta hilaren 13an Musika Eskolan Bandarekin, 20:00etan.

Tolosa. Arpegi taldearen Ostiral Meheko jaialdirako sarrerak salgai daude Cantabrico, Triangulo eta Meson Atodo tabernetan.

Tolosa. Heleta-Baigorri (Behe Nafarroa) irteera antolatatu du Alpino Uzturre mendi elkarteak iganderako. Izen-ematea, elkartearen (Gudari 6. 943 65 27 89).

Tolosa. Tolosako Musika Bandak hilaren 11an eskainiko duen Inauteri kontzertuan parte hartzera gonbidatu nahi ditu kide ohiak. Entseguak, asteartea 6an eta osteguna 8an, 20:15ean, Musika Eskolan.

Orexa. Guraso Eskola antolatu dute gidaria Garbiñe Merino dela otsailaren 13an, otsailaren 27an eta martxoaren 6an 18:00etatik 19:30era. Haurtzaindegi zerbitzua izango da. Izen-ematea, 943 682228 telefonon.

Villabona. Datorren igandean Gorbeira joango da Aizkardi mendi elkarte. Izen-ematea, elkartearen bertan edo 943 694458 telefonon (Joxan).

Zizurkil. Izen-abizenak euskal grafiara aldatu nahi duenak Aurrera plazako udal bulegoetara jo dezala errolda agiria (bertan egin daiteke), jaiotza agiri literala, NANen fotokopia eta familia liburuarekin.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
Ibarra. Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-20:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).
20:00-21:00. Goiko eskolatik betti.
21:00-22:00. Izarrak eta ilargia.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Lehen inauteri doinuak

TOLOSA ▶ Musika Bandak eta Txistulari Bandak ohiko Kalderero eta Inauteri kontzertua eman zuten herenegun lurreamendi egoitzan



Goian txistulariak; behean, Musika Eskolako perkusio taldearen laguntzaz danborrada jo zuten. HITZA

ERREDAKZIOA

Inauteriak gero eta gertuago dituzte tolosarrek eta dagoeneko eromen aste honen usaina ere nabaria da herrian. Asteburuan kalera irteera besterik ez zegoen: txaranga doinuak, perkusio doinuak eta jai giroa nagusi. Odola berotzen dute dagoeneko inauterizaleek.

Herenegun, aldiz, lurreamendi egoitzako egoiliarren txanda izan zen. Izan ere, Musika Bandak eta Txistulari Bandak Kalderero eta Inauterietako kontzertua eskaini zuten bertan bizi direnei. «Oso gustura» pasatu zuten bertan bildutakoek. Urtero bezala Kalderero eta Inauterietako piezak izan ziren gehienak eta Donostiako Danborradako doinuak ere entzun ahal zituzten, Musika Eskolako perkusio ikasle batzuen laguntzaz danborra jotzen. Gainera Inauteri pieza batzuk abestu ere egin zituzten zeinak musikariek eta entzuleek bere txaloeekin jarraitu baitzituzten.

Ohitura bilakatu den kontzertu honek badu bere historia. 1985ean Petra Pintado lurreamendiko arduradunari egin zitzaion omenaldian parte hartu zuen bandak kontzertu bat eskainiz, bertako elizan. Zartzuela ezagunen zatiak izan ziren nagusi eta bukaeran Inauterietako pieza batzuk eskaini zituzten. Orduan sortu zen kontzertua urtero-urtero egitearen ideia, Kalderero eta Inauteri doinuak interpretatuz lurreamendiko areto nagusian eta gaur arte mantendu egin da.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Soizte Goñi (Senpere).
Muxak eta egun zoriontsu bat guraso, famili eta lagunenez partez.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZaren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZaren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...